

Xipri Arbelbide

APAIZA ETA IDAZLEA

Rouco Varela eta familia

Gaitezko manifa izan da Madrilen: Espainiako jendetzaren arabera, guk *Egunkaria*-ren alde egin genuenaren mailakoa. Bi gogoeta merezi ditu, ezta? Aitortuko dut Rouco Varela batere ez zaidala gustatzen, ezta Cañizares ere. Zapateroren kontra bildu ote dira jende oste horiek? Ez zait iduri Rajoyk gehiago entzunen dituenik bozak irabazten baldin baditu. Baina niretzat ez da aski zerbait Rouco, Cañizares, Zapatero ala Rajoyk errana izatea, gezurtzat ala egiazat hartzeko.

Demokraziaren izenean, Roucok badu Espainia batuaren alde mintzatzeko eskubidea, nik kontra bezala. Familia mota baten alde manifestatzekoa, beste batzuk Euskadi independentearen alde edo kontra bezala. Bakoitzak bere argumentuekin, nahi badu gehiengoa bereganatu. Baina familiari doakionaz, iduri luke “modernitateko” ikuspegiak besterik aipatzea debekatua dela, “zuek, ixilik!” oihiak entzun gabe. Galdera zenbait egin nitzake.

Urtean 7.000 etorkin beharrezkoak dira EAEn. Belaunaldi batez 200.000. Ez ote sortze baino heriotza doble eta gehiago dugulako? Horrek ez ote du deus ikustekorik familia mota bat edo bestearekin? “Modernitateak” ekarri familiaren ala tradizionalaren ondorioa da? Lehenak ez ote du euskal populuaren desagertzea ekartzen? Gizonaren historian populuak desagertu dira. Zergatik ez gurea?



DANI BLANCO

Euskal herri batek iraun dezan, zilegi ote da, guk haurrak egin nahi ez ditugulako, indio eta beltzei eskatzea urtean 7.000 egin ditzaten guretzat? Musu-truk. Edo esker txarrean truk. Gure garapena segurtatzeko. Gure zahar arranda edo erretiroa pagatzeko. Zuzen da, bizitzeko, egunean euro batez petik daukan Niger-eko emazteak haurrak egin ditzan, hazi errentagarria izan arte, gu asean eta betean bizi gaitzen? Emazte horri galdetzen ahal diogu egunean bi edo hiru kilometro egitea hamabost litro buru gainean, Europak zerrirentzat debeka lezakeen ura emateko edatera bere haurrei, gure ongizateagatik?

Normal ote da seme horiek milaka joan daitezen itsas zolara, Afrika eta Kanariar Uharteak, Gibraltar, Espainia, Sizilia, Zipre edo Arabia artean? Herri izen horiek argi erakusten dute nor noren bizkar bizi den.

Normal ote da “modernitateko” kotzoen sexu-janiza asetzeko, Amerika, Afrika edo Eki Europatik ekar ditzaten puta-esklaboak (putetarik %90)? Ez dadin ez polizia nazional ez ertzaintzarik izan esklabo horien libratzeko?

Horrelakoak ezin jasanak zaizkit niri. Horrelakoak ez gertatzeko, ez dut familia tradizionalaz besterik ikusten, ukitu zerbait behar badu ere. “Modernitateak” ekarri digun familia berriaren aldekoek erakuts dezatela zer aterabide duten gorago aipatu *arazoxka* horientzat. ■

« Normal ote da ‘modernitateko’

kotzoen sexu-janiza asetzeko,

Amerika, Afrika edo

Eki Europatik ekar ditzaten

puta-esklaboak?

»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Eguneroko ogibidean nekez izan dezaket aukera askatasunez mintzatzeko, merkatuak aukeratzen baitzikit harremanak. Geroz eta gogorragoa zait

lana eta askatasuna batera bizitzen. Bortxatua izan den emakumearen antzera, hala iritzi nago, inoiz torturatua izan denak ezingo du hura ahanzi. Bortxatzaileek ezin omen dute sendatu. Gizarteak ezin ditu jasan eta zikiratze formulen egokiera eztabaidatzen da publikoki. Edonor da gauza iritzia emateko. Gorka Lupiañezen deskribapenen latzak ez du biderik egin jendartean. Ez zuten ospitalizatu behar izan urgentziz. Ez da Igor Portu lesakarraren kasua.

Lupiañez

nahi dutenen eremutan, egia honek deserotasuna sortzen du. Bertsio ofiziala dute kondoi. Torturatzaileak funtzionario. Eta batzuetan, behar bada, erotu ere egiten dira eta desmasiak egin. Eszedentzia beharko lukete, gogorra baita beren ofizioa. Izan ere, hauek gaizkiari aurre egiten profesionalak dira eta ez eriak. Eta zinismo intelektualak horrela egiten du bide luze eta zabala, isiltasuna ibilgailu eta abidura handiz. Milaka dira joan urtetan torturatutako euskal militanteak, ahanzturaren ona bizi ezingo dutenak. ■

Hala ere, txiki-txiki egin izanak publiko egin du ohikoa dena. Euskal militanteak torturatzen dituzte. Eta Espainia demokrata dela sinetsita bizi